


AITITAMAMAK BELENGO KUMEARI ERAGITEN

1

- Ondo etorri, Jesus, zerutik lurrera!
- Aitarengndik nator zuok salbatzera.
- Ze Salbatzaile zara jatsirik hain beheara?
- Danetan izan nahi dot nik zuon antzera.



2

- Zeru-lurren Egile hain txiki egina,
- Gizon izatea da nire atsegina.
- Hau sinistu nahi eta sinistu ezina!
- Bai, nire maitasunez beteko bazina.

3

- Zure zain egon gara hainbeste denpora,
- Aitak esanda nator gaur zuen ondora.
- Inok hartu nahi ezta, herritik kanpora
- Gaixo, zaharren artean hain nago gustora!



4

- Aititamamak gara gaixo ta alargun
- Zuek danok eta Nik ze antza daukagun!
- Zahartzaroan Zurekin egin gara lagun
- Alkar behar dogu ta alkar maite daigun!

5

- Zorionak bihotzez Belengo mutiko!
- Ez al nozue zuek bakarrik itziko!
- Zeuk batu gaituzu ta jarri Zeu erdiko
- Halan izan dedila orain ta betiko.

6

- Zoriona itzita zatoz arriskura
- Horra munduak Niri zer deustan ardura
- Lagunduko deustugu nahi dozun modura
- Sartu poza, negarra dagoan lekura

7

- Jesus, jaio zinan Zu aintxina Belenen
- Nonahi jaio nahi neuke, han izan zan lehenen
- Graziz jaio zaitezcan prest gaukazuz hemen
- Bake-poza zabaldu ta kateak eten.



8

- Gurean deustugu gaur jaiotza prestatu
- Zuen artean pozik hartzen dot ostatu
- Jesus, senitarte hau arren, bedeinkatu!
- Bakez ta pozez danok daigula ospatu.